Dos días más tarde, el **11 de septiembre** Ganso & Cía nos harán reír en **Elcarte (18:30)** con "Panoli Kabaretaprodia", un espectáculo circense en el que se mezclan magia, vodevil o equilibrismo en un popurrí de fracasos y algún que otro éxito de los protagonistas. La última parada será en **Loza el 16 de septiembre (18:30)** de la mano de Producciones Kinser y su "Fábrica de sueños". Kiny y Jano, padre e hijo en la ficción y en la realidad, rescatan en esta historia la importancia de los valores educativos y familiares con un mensaje claro: nada es fácil y el esfuerzo es imprescindible, pero también hay que desearlo con mucha fuerza.



Lehen hitzordua **Larragetan** izanen da **abuztuaren 5ean (19:00)**, Maite Guevarak "Qué buen día" clown ikuskizuna emanen baitu. Ederki pasatu nahi duten adin guztietako pertsonentzat da. Martina protagonistak erakutsiko digu amets egiten duenak eta begiak ongi irekitzen dituenak hamaika aukeraz beteriko mundu bat ikus dezakeela.

Abuztuaren 26an, antzerkia **Berriogoitira** iritsiko da **(18:30)**, "Chef Nature" lana-rekin. Markeliñek aire zabaleko jate-txe batean esertzeko gonbitea egingen digu, jate-txeak bere baratzea dauka, eta han ez dute lekurik mugikorrek, esku-ordenagailuek eta tabletek. Erritmoa, keinua eta irudimena dira lan dibertigarri horren osagaiak.

Irailaren 9an, Añezkarren (17:00), Circo La Raspak "Cataplum!" aurkeztuko du, hau da, zirkua eta animazioa jende guztiarendako. Torri di Chous eta Richi di Chous pertsonaiek mila malabarismo egingen dituzte Cataplum ez egiteko.

Bi egun geroago, **irailaren 11n**, Ganso & Cía taldeak irri eginaraziko digu **Elkarteen (18:30)**, "Panoli Kabaretaprodia" zirku-ikuskizunaren bidez. Magia, vau-devillea eta oreka-jokoak ikusgai; protagonisten porrot sorta ederra eta, tarteka, arrakastaren bat ere bai.

Azken emanaldia **Lotzan** izanen da, **irailaren 16an (18:30)** Producciones Kinser taldearen eskutik. "Fábrica de sueños" antzezlanean, Kiny eta Jano aita-semeak dira fikzioan eta errealitatean. Mezu argia zabalduko dute hezkuntza eta familia arloko balioez: ezer ez da erraza, eta ahalegina behar-beharrezkoa zaigu, baina hori ere indar handiz desiratu beharra dago.

HABANERA JAIALDIA / FESTIVAL DE HABANERAS

Kalitate handiko emanaldiak

Hiru abesbatza aritu ziren jaialdian joan den maiatzaren 7an, hots, Barañaingoa, Berriozarko Elkarrekin eta Iruñeko Viva la Música, eta dozena bat habanera eta polifonia-lan eman zituzten María de Maeztu Kultur Etxean. Abesbatza bakoitzak bi habanera eta bi polifonia-lan abestu zituen. Jaialdia Armonía Errondailako Ángel Indak antolatu zuen, Berriobetitiko Udalarekin elkarlanean.

Interpretaciones de gran calidad

Las corales Barañáin, Elkarrekin de Berriozar y Viva la Música de Pamplona interpretaron una docena de habaneras y obras polifónicas en el Festival que se celebró el pasado 7 de mayo en la Casa de Cultura María de Maeztu (Artica). Cada coral presentó dos habaneras y dos obras polifónicas. El festival fue organizado por Ángel Inda de la Rondalla Armonía, en colaboración con el Ayuntamiento de Berrioplano.



PASEOS SALUDABLES
IBILALDI OSASUNGARRIAK

12 JUNIO 2022 / 2022 EKAINA BERRIPLANO INFORMA / BERRIOBEITIKO AHOTSA



10 eta 20 lagunen artean elkartzen dira hilero Berriobeitiko Udalak Zendeako herrietan barna proposaturiko ibilaldi osasungarrietan. Horrela, bi ordu inguruz, 'pilatwalk' egiten dute, hau da, martxa nordikoa eta pilates uztartzen dituen modalitatea. Gainera, gure udalerriko txokoak ezagutzeaz gain, parte-hartzaile guztiak solasaldi goxoan aritzen dira

Entre 10 y 20 personas participan cada mes en los paseos saludables que propone el Ayuntamiento de Berriplano por los pueblos de la Cendea. Durante aproximadamente dos horas practican 'pilatwalk', una modalidad en la que combinan la marcha nórdica y el pilates mientras conocen distintos rincones del municipio y disfrutan de la charla con el resto de participantes.

Ibilaldiak Zendea barna, osasun eta adiskidetasun bide

Paseos por la Cendea, fuente de salud y de amistad

Euriak, elurrak eta hotzak ez dituzte ibilaldi osasungarriak eragotzi, eta aurtten, hilaren lehen ostiraletan egin dira, 10:00etan abiatuta. Ekainaren 3a, eguna eguzkitsu heldu da eta, horrek animaturik, hoguei lagun inguru elkartu dira Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean, hitzorduari erantzunez. Zapatila erosoek eta eskumakilez gain, gaur behar-beharrezkoak izanen dira ura eta txanoa, goiz-goizetik sumatzen baita eguzkiak bazterrak berotuko dituela.

Egunero bezala, hasteko eta bat, luzamendu-ari- ketak egiten dira; oraingo honetan, Berriobeiti

Ni la lluvia, ni la nieve, ni el frío han impedido que los paseos saludables se lleven a cabo cada primer viernes de mes a las 10:00 en este 2022. El 3 de junio el día amanece soleado y eso anima a cerca de una veintena de personas a acudir a la cita en el edificio multiusos de Berriplano. Además de zapatillas cómodas y bastones, hoy el agua y la gorra serán imprescindibles porque el calor ya se deja sentir desde primera hora.

Como todos los días, se comienza con unos ejercicios de estiramientos, en este caso en los

Parkeko lorategietan. Berotzea bukatzen denean, **Juan Andrés García** monitoreak martxaren teknika azaltzen die gaur lehen aldiz etorritakoei, ibilbidearen inguruko txantxaren bat edo beste tartekatuta. “Gaur, Ezkaba igotzea egokitu zaigu”, iragarri die, baina berehala azaldu die ibilaldi erraza izanen dela, joan-etorria Berriozarko alde zaharreraino. Poliki-poliki, taldea Aitzoango bidean doa aurrera. Taldea gero eta gehiago luzatzen da, jendea solasean gustura ari den bitartean. Bidean astirik izanen da edateko eta pilates egiteko. Gaur, gainera, bazkaltzera geldituko dira.

Taldekieen artean, badira gazteak eta, beste batzuk, berriz, adinez aurrera doazanak. Horrela, Artika Berriko **Emily Chang**ek 20 urte ditu. **Javier Huartek** (Elkarte) eta **María Ángeles Curialek** (Berriogiti), berriz, esan digute kintoak direla -69-, eta bada 70 urtetik gorakorik eta, are gehiago, inoiz-edo 80 urtetik gorako jendea ere etorri izan da. Gehienak emakumeak dira, baina ateraldi batzuetan gaurkoan baino gizon gehiago ibili dira. Haietako asko Juanek zuzendutako pilates udal jardueran ari dira, baina gidariak azpimarratu nahi izan du ibilaldiak jende guztiarendako direla, eta doan, jakina. “Duela hiru urte hasi ginen eta oso ongi funtzionatzen du –esan digu–. Batez beste, 12 lagun etortzen dira, eguraldiaren arabera, eta askok errepikatzen dute. Martxa nordikoa kirol zoragarria da gorputzeko hainbat atal lantzeko. Gainera, tarteka bidean gelditu eta pilates ariketak egiten ditugu, eskumakilak erabiliz. Horri ‘pilatwalk’ esaten zaio eta martxa bera baino hobea da”.

Bakoitzak bere eskumakilak eraman behar ditu; bestela, antolatzaileek utziko dizkiote. Javier Huartek, adibidez, eskumakilak erosi ditu, erabilgarriak direla ikasi duelako: “Egunero joaten naiz ibiltzera eta, lehenago, makila bat bakarrik erabiltzen nuen, baina ikusi dut askoz ere erosoagoa dela biekin joatea. Egia esateko, ez naiz sekulan udal jardueretan aritu orain arte eta poz-pozik nago, ez bakarrik ariketa fisikoa egiten delako, baizik eta era berean jendea ezagutzen duzulako eta solas goxoan tarte atsegina pasatzeko aukera duzulako”. María Ángeles Cuiral iritzi berekoa da: “Ateraldi guztietara etorri naiz, huts egin gabe, oso pozik bainator. Batetik, on egiten didalako nabarmen eta, bestetik, oso jende jatorra dugulako eta arras ongi moldatzen gara”.

Ibilaldiek, gainera, badute bestelako erakargarritasunik, naturaz gozatzeko aukera ematen baitute eta, zenbaitek, gainera, Zendeako txoko ezezagunak ezagutu dituzte. “Niri, adibidez, Lotzako ibilaldia gustatu zitzaidan aunitz –esan digu **Idoia Tellaetxe** Aitzoangoak–; taldekide batzuek, gainera, ibiltzen garen lekuak eta bideak ezagutzen dituzte eta istorioak kontatzen dizkigute”.

Taldeko gazteena Emily da eta gozamen ederra zaio aire zabalean ibiltzea: “arratsaldeetan, unibertsitatera noa eta goizeko ibilaldiak lasaigarri zaizkit. Zorionez, inguru aski laua da, aldapa txikiren bat kenduta; beraz, edonork egiteko modukoa. Ni gustura nago nire izebarekin hizketan edota gainerako taldekideekin”.

Ibilaldiak oso arrakastuak direnez, hainbat parte-hartzailek ez dute sekulan huts egiten eta poz-pozik leudeke, maiztasun handiagoz egiten balira: hamabostean behin edo baita astean behin ere.

jardines del Parque Berrioplano. Cuando finaliza el calentamiento, el monitor **Juan Andrés García** explica la técnica de la marcha a las nuevas incorporaciones y bromea acerca del recorrido. “Hoy toca subida a Ezkaba”, les anuncia, pero enseguida les explica que será un paseo sencillo hasta el casco antiguo de Berriozar, y vuelta, claro. Poco a poco el grupo comienza a marchar camino de Aizoain y se va estirando mientras unas y otros charlan animadamente. Por el camino habrá tiempo para detenerse a beber o practicar pilates y, ya de vuelta, hoy tienen prevista una comida.

En el grupo caminan personas de edades muy diversas. **Emily Chang**, de Nuevo Artica, tiene 20 años, mientras que **Javier Huarte** (Elkarte) y **María Ángeles Curial** (Berriosuso) nos cuentan que son

quintos -69- y hay quien supera los 70 e incluso, en alguna ocasión, los 80. La mayoría son mujeres, aunque ha habido salidas con más presencia masculina que la de hoy. Muchas son alumnas de la actividad municipal de pilates que dirige Juan, pero éste recalca que los paseos son actividades gratuitas abiertas a toda la población. “Comenzamos hace tres años y está funcionando muy bien –comenta–. Suele acudir una media de 12 personas, dependiendo del tiempo, y muchas repiten. La marcha nórdica es un deporte fantástico que trabaja distintas partes

del cuerpo. Además, lo combinamos con paradas en las que hacemos ejercicios de pilates utilizando los bastones. Es lo que se llama ‘pilatwalk’, todavía más completo que la marcha”.

Los bastones los puede traer cada persona y, si no es así, la organización le presta unos. Javier Huarte, por ejemplo, ha adquirido unos porque ha descubierto su utilidad: “Suelo ir a andar a diario y antes empleaba solo un bastón, pero he comprobado que ir con los dos es mucho más cómodo. La verdad es que no había participado en ninguna actividad municipal hasta ahora y estoy encantado, no solo por el ejercicio físico, sino porque te da la oportunidad de conocer gente y pasar un rato agradable charlando”. De la misma opinión es María Ángeles Cuiral: “No he faltado a ninguna salida porque vengo muy contenta. Por una parte, me siento de maravilla y, por otra, tenemos un grupo de gente muy majo en el que nos llevamos muy bien”.

Otro de los atractivos de los paseos es que permiten disfrutar de la naturaleza y, para algunas personas, descubrir rincones de la Cendea que desconocían. “A mí me gustó mucho el paseo de Loza, por ejemplo, –comenta **Idoia Tellaetxe**, de Aizoain–; además, hay integrantes del grupo que conocen los lugares y caminos que visitamos y nos cuentan historias”.

La benjamina del grupo, Emily, también disfruta de los paseos al aire libre. “Por las tardes voy a la universidad y estos paseos de mañana son una manera de relajarme. Tenemos la suerte de que la zona es bastante llana, salvo alguna pequeña cuesta, así que cualquiera puede hacerlo. Yo me lo paso bien charlando con mi tía, que viene conmigo, o con el resto de personas del grupo”.

Tal es el éxito de los paseos, que varias personas no faltan nunca la cita y dicen que estarían encantadas si la periodicidad fuera mayor: quincenal o incluso semanal.



OSPAKIZUNA / CELEBRACIÓN

Euskararen
egun handiaEl euskera vivió
su día grande

Eguraldia oso aldekoa izan ez bazen ere, hau da, goizean bero zakarra, arratsaldean haize handia eta ilunabarrean ekaitza, Berriobeiti Zendeako bizilagunek ederki gozatu zuten Euskararen Jaia, jardueraz beterik etorri baitzen.

Ekitaldia antolatu zenean, urtarrilean, Covid gaitza oraindik ere indarrean zegoen; beraz, badaezpada ere, Euskararen Jaiaren ohiko moldea aldatu eta, aurten, ez da herri bazkaririk izan. Ekitaldiak, gainera, Berriobeitin eta Artikan egin ziren, leku bakarrean egin ordez. Ondorioz, euskara bera eta jaiaren oihartzunak are gehiago zabaldu ziren Zendea barrena. Goizean, ekitaldi gehienak Berriobeitin egin ziren: **erraldoiak, dantzak, musika, herri kirolak eta bertsolaria.**

Artikan, bestalde, Ametza abesbatza izan zen aurrena eta, arratsaldean, berriz, ohiko jendeari Artika Berri auzoko bizilagun aunitz batu zitzaizkion. Adin honetako eta hartako haurrek jolasak eta tailerrak gozatu zituzten era bateko zein besteko gaien inguruan.

Gabezin taldeak dantzaldia girotu ondoren, Asier Burguete DJ-aren txanda iritsi zen. Golazen serieko protagonistak haur guztiak jarri zituen dantzan eta jauszika, baita gatzetxoak eta gurasoak ere. Horra jai bukaera bikaina udari ongietorria emateko!



Aunque el tiempo no ayudó mucho - temperaturas sofocantes por la mañana, viento fuerte por la tarde y tormenta por la tarde-noche-, los y las vecinos/as de la Cendea de Berrioplano vivieron una Fiesta del Euskera cargada de actividades.

En el momento de organizar el evento, allá por enero, con el Covid aún muy presente, por precaución se decidió modificar el formato habitual de la Fiesta del Euskera. Es por ello que en esta edición no hubo comida popular y los actos del Día del Euskera se desarrollaron en dos puntos diferenciados: Berrioplano y Artica. Este desdoblamiento permitió que la presencia del euskera y los ecos de la fiesta se exten-

diesen aún más por la Cendea. Por la mañana, el grueso de los actos se concentró en Berrioplano, con **gigantes, danzas, música, deporte rural y bertsolaris.**

En Artica la fiesta comenzó de la mano de la **coral Ametza**, y a la tarde, al público habitual se sumó una parte del vecindario del barrio de Nuevo Artica. Niños y niñas de diferentes edades disfrutaron de **juegos y talleres** con diferentes temáticas.

Tras los **bailables con Gabezin**, llegó la sesión del **DJ Asier Burguete**, protagonista de la serie Golazen, que consiguió arrancar bailes y saltos a txikis, adolescentes, padres y madres. ¡Un magnífico fin de fiesta para dar la bienvenida al verano!

DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES

Euskara ikasteko laguntzak

2021eko uztailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitarte euskara ikasteko ikastaroetan aritu diren Berriobeitiko udalerriko bizilagunek dirulaguntza eskatzeko aukera izanen dute datorren **uztailaren 4ra bitarte**, udal erregistroan.

Deialdiaren bidez, Udalak euskararen ikaskuntza bultzatu nahi du, horrek eragiten dituen gastuak neurri handian ordainduz.

Laguntzak errentaren arabera ematen dira eta % 70etik % 100era bitartekoak izan daitezke.

*Argibideak, Euskara Zerbitzuan
(948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Ayudas por estudiar euskera

Los vecinos y vecinas del municipio de Berrioplano que hayan asistido a cursos de aprendizaje de euskera entre el 1 de julio de 2021 y el 30 de junio de 2022 podrán solicitar una subvención **hasta el próximo 4 de julio** en el Registro del Ayuntamiento. Por medio de esta convocatoria, el Consistorio busca impulsar el aprendizaje del euskera, financiando en gran parte los gastos que genera.

Las ayudas se conceden en función de la renta y pueden ir desde el 70 hasta el 100%.

*Más información en el Servicio de Euskera
(948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Dirulaguntzak udako kanpaldietarako

Udalak berriz ere atera du beken deialdia Berriobeitiko udalerritik kanpo egiten diren euskarazko udalekuearako. Eskeraek irailaren 1etik 30era eskatu beharko dira Udal Erregistroan. Laguntza errentaren arabera emanen da eta udalekuaren zenbateko guztiaren % 40 ere izan daiteke.

*Argibideak, Euskara Zerbitzuan
(948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Subvenciones para los campamentos de verano

El Ayuntamiento ha vuelto a convocar las becas para los campamentos de verano en euskera que se desarrollan fuera del municipio de Berrioplano. Las solicitudes podrán presentarse **del 1 al 30 de septiembre** en el Registro municipal. La ayuda, según las rentas, podría llegar al 40% del importe total del campamento.

*Más información en el Servicio de Euskera
(948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

2022-23 IKASTURTEA / CURSO 2022-23



54 ikasle berri Musika Eskolan

Orreaga Musika Eskolak 54 ikasle berri izanen ditu 2022/2023 ikasturtean; haietako 22, 4 eta 6 urte bitartekoak. Kantua izan da irakasgairik eskatuena eta, ondotik, honako instrumentu hauek: gitarra klasikoa, pianoa, gitarra elektrikoa, trikitixa, akordeoia, bateria eta perkusioa. Eskolak eskatu du jende gehiagok eman dezala izena haize-instrumentuetan, eskola barneko musika-talde handienak mantentzeko. Izan ere, 20 instrumentu eskainirik, 8 bakarrik eskatu dira. Hori dela eta, Musika Eskolak instrumentua utziko dio lehen ikasturtean haize-instrumentu batean matriculatu denari.



La Escuela de música Orreaga arrancará el curso 2022-23 con 54 alumnos y alumnas nuevos/as, de ellos 22 de edades entre los 4 y 6 años.

Los instrumentos más solicitados han sido canto (el más demandado), guitarra clásica, piano, guitarra eléctrica, trikitixa, acordeón, batería y percusión. Desde la Escuela lanzan un llamamiento para que aumenten las inscripciones de instrumentos de viento para poder seguir manteniendo sus agrupaciones más potentes, ya que de los 20 instru-

54 nuevas alumnas y alumnos en la Escuela de Música

Matrikulazioa epetik kanpo ere zabalik

Haize-instrumentuak aukeratzen dituzten ikasleak behar direnez bandak eta musika-taldeak osatzeko, Eskolak matrikulazio epea luzatu du. Beraz, epetik kanpo egonda ere, Musika Eskolan matrikulatu nahi baduzu, idatzi posta bat **orreagamusika@gmail.com** helbidera.

Bestalde, aurtan ere, Musika Eskolako ikasleek parada ederra izan dute musikan iaioitasunez moldatzen direla erakusteko, maiatzaren 3tik ekainaren 16ra entzunaldiak egin baitira hainbat agertokitan, hala nola Musika Eskolan bertan, Artikako plazan eta Artikako La Ventana tabernan.

mentos ofertados, solo han sido demandados 8. Por eso, a todo el que se matricule en un instrumento de viento la escuela de música le dejará el instrumento durante su primer curso.

Matriculación abierta fuera de plazo

La necesidad de incorporar alumnado que elija instrumentos de viento y puedan completarse bandas y agrupaciones variadas ha llevado a la escuela a ampliar el plazo de matriculación. Si estás interesado/a en matricularte en la escuela de música fuera de plazo, escribe un correo a la siguiente dirección: **orreagamusika@gmail.com**.

Por otro lado, un año más, el alumnado de la escuela de música tuvo la oportunidad de demostrar sus habilidades musicales en las audiciones que se celebraron del 3 de mayo al 16 de junio en distintos escenarios (escuela de música, plaza de Artica y bar La Ventana de Artica).

KIROLAREN EGUNA / DÍA DEL DEPORTE

Arrakastatsua,
bai ikuslez bai
parte-hartzailezÉxito de asistencia
y participación

A pesar del intenso calor, los y las vecinas del municipio de Berrioplano se unieron a la fiesta del deporte el pasado 21 de mayo y disfrutaron de una jornada cargada de actividades. Por la mañana, la pista deportiva de Artica acogió el muro de escalada, un circuito de karts, la presentación del equipo ciclista Berritxaco y los juegos de iniciación de ciclismo, patinaje y atletismo, que acogieron a numeroso público infantil. Los/as txikis no desaprovecharon la oportunidad de subirse a los patines y a la bici, o marcarse una carrera al mismísimo estilo del campeón del mundo de maratón Martín Fiz.

En la plaza nueva de Artica, 30 valientes desafiaron a las altas temperaturas y participaron en una masterclass de zumba, que, debido

al calor, tuvo que compartir protagonismo con los botellines de agua fría que recibieron continuamente los y las participantes. A las 13:00 tuvo lugar la entrega de los galardones deportivos del Ayuntamiento. En esta segunda edición han recaído en el vecino de Artica del club Korrikolaris Iñaki Hernández, atleta y ciclista con discapacidad que ha alcanzado grandes logros, como su participación en tándem adaptado en la Titan Desert de Marruecos con el equipo de Aspace Navarra; en Maider Irisarri, de Añezcar, que finalizó su carrera deportiva en Osasuna en 2020. La delantera fue pionera en el deporte femenino al convertirse en la primera mujer en jugar en la liga Reto Iberdrola después de ser madre; y el Club Articapatín, que

zuen tandemean, Aspace Navarra taldearekin; bestalde, 2020an Osasunan kirol ibilbidea bukatu zuen Añezkarko Maider Irisarri ere eman diote saria. Aurrelaria aitzindaria izan zen emakumezkoen kirolean, lehen emakumea izan baitzen Reto Iberdrola ligan jokatzeko, ama izan ondotik; eta Articapatín klubak ere eskuratu du saria, 5 urtean doi ederki hazi baita eta oinarriko kirola bultzatu du, prestakuntzan oinarriturik, lehia bazterrean utzi gabe. Sekulako giroa izan zen, aperitiboaren orduan egin baitzen eta, sarien arrimuan, jende aunitz bildu zen.

Arratsaldean, jende ugari elkartu zen Berribeitiko pilotalekuan, udalaren kirol eskolatan ari diren 240 haurren erakustaldia gozatzeko: pilota, hiri-dantza, taekwondo, judo, gimnasia erritmikoa, txiki zumba eta kick boxing. Maiatzaren 22an, Mendi Film jaialdiaren Mendi tour ziklo ibiltaria egin zen, mendiari, abenturari eta naturari buruzko filmak ikusteko; proiektzio ikusgarriez gain, solasaldia egin zen jaialdiaren ordezkariekin.

en tan solo 5 años ha experimentado un gran crecimiento y ha impulsado el deporte base con un enfoque formativo sin renunciar al competitivo. El ambiente fue inmejorable, ya que coincidió con la hora del aperitivo y nadie quiso perderse la cita. Por la tarde, el frontón de Berrioplano acogió a numeroso público que disfrutó de las exhibiciones de los 240 niños en total de las escuelas deportivas municipales de pelota urbana, taekwondo, judo, gimnasia rítmica, judo, txiki zumba y kick boxing. El 22 de mayo, se celebró el Mendi tour, el ciclo itinerante de cine de montaña, aventura y naturaleza del Mendi Film, con espectaculares proyecciones y una charla-colquio con los representantes del festival.

en tan solo 5 años ha experimentado un gran crecimiento y ha impulsado el deporte base con un enfoque formativo sin renunciar al competitivo. El ambiente fue inmejorable, ya que coincidió con la hora del aperitivo y nadie quiso perderse la cita. Por la tarde, el frontón de Berrioplano acogió a numeroso público que disfrutó de las exhibiciones de los 240 niños en total de las escuelas deportivas municipales de pelota urbana, taekwondo, judo, gimnasia rítmica, judo, txiki zumba y kick boxing. El 22 de mayo, se celebró el Mendi tour, el ciclo itinerante de cine de montaña, aventura y naturaleza del Mendi Film, con espectaculares proyecciones y una charla-colquio con los representantes del festival.

en tan solo 5 años ha experimentado un gran crecimiento y ha impulsado el deporte base con un enfoque formativo sin renunciar al competitivo. El ambiente fue inmejorable, ya que coincidió con la hora del aperitivo y nadie quiso perderse la cita. Por la tarde, el frontón de Berrioplano acogió a numeroso público que disfrutó de las exhibiciones de los 240 niños en total de las escuelas deportivas municipales de pelota urbana, taekwondo, judo, gimnasia rítmica, judo, txiki zumba y kick boxing. El 22 de mayo, se celebró el Mendi tour, el ciclo itinerante de cine de montaña, aventura y naturaleza del Mendi Film, con espectaculares proyecciones y una charla-colquio con los representantes del festival.

FUTBOLA / FÚTBOL



Osasunaren bisita. Osasunako lehen taldeetako lau jokalaririk solasean aritu ziren joan den martxoaren 31n, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean: Lucas Torró, María Blanco, Miriam Rivas eta Iñigo Pérez. Entzuleak Artikako, Berribeitiko eta Añezkarko futbol eskolako ikasleak izan ziren. Solasaldia dibertigarria izan zen zinez eta, horrez gain, jokalariek Osasunako opariak banatu eta argazkiak sinatu zituzten.

Visita de Osasuna. La Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) acogió el pasado 31 de marzo una charla de jugadores/as de la primera plantilla de Osasuna: Lucas Torró, María Blanco, Miriam Rivas e Iñigo Pérez. El acto reunió al alumnado de escuela de fútbol de Artica, Berrioplano y Añezcar, que disfrutó de una divertida tertulia en la que también hubo entrega de obsequios rojillos y firma de fotografías.

INSTALACIONES DEPORTIVAS / KIROL INSTALAZIOAK

Actividades para el verano

Udarako jarduerak

Este verano no van a faltar actividades y días especiales en la **Ciudad Deportiva de Artica** y en las **Instalaciones Deportivas de Berrioplano**. Tras el inicio de la temporada de verano el 11 de junio se presenta una campaña muy divertida. En ambas instalaciones habrá una programación especial con masterclass de **aquaboard**, **aquazumba**, **cardio box**, **body balance**, **talleres infantiles**, **juegos acuáticos**, o **Día de la magia**, entre otros. En el caso de la Ciudad Deportiva de Artica será los “Viernes divertidos” 24 de junio; 1, 22 y 29 de julio; y 5, 12, 19 y 26 de agosto. En las instalaciones deportivas de Berrioplano serán los “Miércoles locos” 29 de junio; 20 y 27 de julio; y 3, 10, 17, 24 y 31 de agosto.

El programa se desarrollará en exteriores y las actividades podrán ser aplazadas o suspendidas debido a condiciones climatológicas adversas.

En verano las instalaciones deportivas ofertarán **cursos intensivos de natación** (infantiles y adultos), **cursos deportivos** (infantil juvenil y adultos) y el **abono fitness verano** de la Ciudad Deportiva de Artica (más info en: www.ciudaddeportivaartica.es).



Uda honetan, jarduerak eta egun bereziak izanen dira **Artikako Kirol Hirian** eta **Berriobeitiko Kirol Instalazioetan**. Udaldea ekainaren 11n abiatuko da eta, itxura guztien arbera, uda dibertigarria izanen da benetan. Bi instalazioetan, izan ere, programazio berezia antolatuko da, **hots, aquaboard, aquazumba, cardio box, body balance, haur tailerrak, urretako jolasak** edo, **Magiaren Eguna**, besteak beste. Artikako Kirol Hirian, “Ostiral dibertigarriak” izanen dira. Honatz egunak: ekainak 24; uztailak 1, 22 eta 29; eta abuztuak 5, 12, 19 eta 26. Berriobeitiko Kirol Instalazioetan, berriz, “asteazken eroak”: ekainak 29, uztailak 20 eta 27; eta abuztuak 3, 10, 17, 24 eta 31.

Ekitaldiak atari zabalean egingen dira, baina eguraldi txarra egiten badu, atzeratu edo bertan behera utziko dira.

Udan, kirol instalazioetan hainbat ikastaro eskainiko dira: **igeriketako ikastaro trinkoak**

(haurrak eta helduak), kirol ikastaroak (haurrak, gazteak eta helduak) eta Artikako Kirol Hiriko udako fitness abonua (argibideak: www.ciudaddeportivaartica.es).

COMPETICIÓN / LEHIAKETA

Cross de Ezkidi en Añezcar

Este año damos la bienvenida a una nueva competición, el Cross de Ezkidi, que se celebrará el **domingo 25 de septiembre (12:00)**, coincidiendo con el **fin de semana del Día de la Cendea**. La carrera, organizada por la sociedad deportiva, y cultural Ezkidi y el Ayuntamiento de Berrioplano, partirá de Añezcar, pasará por caminos que discurren entre Añezcar y Larragueta, continuará por las faldas del monte Ezkidi y concluirá en Añezcar. Hay dos pruebas, una de 5 km y otra de 10. La carrera colaborará con Txiribuelta (acompañamiento a personas con discapacidad y necesidades complejas). Más información, en redes sociales.

Añezkarko Ezkidi Krosa

Aurten, lehen aldiz, Ezkidiko Krosa izeneko lasterketa jokatuko da, **irailaren 25ean, zehazki (12:00)**, **Zendearen Eguneko asteburuan**, hain zuzen ere. Ezkidi kirol eta kultur elkarteak nahiz Berriobeitiko Udalak antolaturik, lasterketa Añezkartik abiatu, Añezkar eta Larrageta arteko bideak zeharkatu, Ezkidi mendiko magalak gurutzatu eta Añezkarren bukatuko da. Bi proba egingen dira, 5 km-koa eta 10 km-koa. Lasterketa Txiribuelta ekimenarekin arituko da lankidetzan (desgaitasuna eta behar konplexuak dituzten pertsonen laguntza emateko ekimena). Argibideak, sare sozialetan.

CAMPAMENTO JUVENIL / GAZTE KANPALDIA

Cuenta atrás para “El Conquistador de la Cendea”



Una veintena de jóvenes de entre 12 y 16 años vivirá este verano una experiencia inolvidable en el campamento juvenil El Conquistador de la Cendea. La edición de este año se celebrará del 22 al 26 de agosto.

Además de realizar juegos y pruebas de superación, los y las participantes aprenderán a disfrutar de la Cendea y sus paisajes, ya que cada día el campamento se establece en un pueblo diferente y se utilizan las casas concejales y/o frontones para pernoctar, para comer y para realizar distintas actividades. Las mañanas se dedicarán a recorrer entre 8 y 12 kilómetros para desplazarse de un concejo a otro, y las tardes se reservarán para superar las distintas pruebas y actividades deportivas al más puro estilo del Conquistador (gymkhanas, pruebas físicas, orientación, tirolinas...).

“Zendearen Konkistatzailea”-ren atzera kontua



12 eta 16 urte arteko hogeitaz gazte inguruk esperientzia zoragarria biziko dute uda honetan, “Zendearen Konkistatzailea” gazte kanpaldian. Aurten, zehazki, abuztuaren 22tik 26ra egingen da.

Probak eta jokoak egiteaz gain, parte-hartzaileek Zendeako txokoak eta paisaiak gozatu dituzte, egunero kanpamentua herri batean jarriko baita. Kontzeju etxeak edota pilotalekuak erabiliko dira lo egiteko, jateko eta bestelako jarduerak egiteko. Goizetan, 8 eta 12 kilometro artean egingen dituzte, herritik herrira joateko eta, arratsaldeetan, berriz, kirol proba eta jardura gogorak gainditu beharko dituzte, telebistako saio ospetsuan bezala (ginkanak, proba fisikoak, orientazioa, tirolinak eta beste).

PATRIMONIO ARTÍSTICO / ARTE ONDAREA



Situada a la entrada del pueblo, la iglesia de Loza está dedicada a San Martín de Tours. Data del siglo XIII y ha sufrido diversas restauraciones. La más importante se llevó a cabo en el siglo XIX para reparar los daños ocasionados por el derrumbe de la pared de la torre sobre la bóveda a consecuencia de las guerras carlistas.

La iglesia, realizada en piedra, es de nave única, con cabecera de testero recto y con torre campanario situada a los pies. En su interior, destacan una talla de la Virgen con el Niño románica con ciertos rasgos que la acercan al gótico temprano (primera mitad del siglo XIII), en posición sedente y en buen estado de conservación; y un grupo que representa a San Martín repartiendo su capa con el pobre, de carácter popular, y que pertenece a la época barroca.

La edificación anexa a la iglesia, antigua casa parroquial, es en la actualidad la Casa del Concejo y sociedad (Artabil).



Iglesia San
Martín de
Tours de Loza

Lotzako San
Martin Tourse-
koaren eliza

Herriaren sarreran kokaturik, Lotzako eliza San Martin Toursekoari dago eskainia. XIII. mendean eraikia, hainbat berrikuntza lan egin zaizkio. Garrantzitsuenak, XIX. mendean. Izan ere, karlistaldien ondorioz, dorreko horma gangaren gainera erori zen eta kalteak konpondu behar izan ziren. Hartz egina, nabe bakarra du, buruaren aurrealdean zuzena da eta kanpandorra oinetan dago. Barnealdean, Ama Birjina eta Haurraren taila erromanikoa da nabarmentzekoa, baina badu gotiko goiztiarrera hurbiltzen duen ezaugarriak (XIII. mendean lehen erdia); eserita dago eta ongi kontserbatua. San Martin ere irudikatua dago, bere kapa behartsu batekin banatua duela; herri-tankerako irudia da, barroko garaikoa.

Eliza ondoko eraikina apez-etxea izan zen. Gaur egun, berriz, Kontzeju Etxea eta Artabil elkarteak.

BERRIOBETI ZENDEAKO KALEAK
CALLES DE LA CENDEA DE BERRIOPLANO

MARÍA BAYO KALEA (ARTIKA BERRI) / CALLE MARÍA BAYO (NUEVO ARTICA)



María Bayo (Fitero, 1961) soprano ospetsua da, oraindik ere kantuan ari dena, nazioartean ibilbide nabarmena egindakoa hala operan eta zartzuelan nahiz kantu klasikoan. Pablo Sarasate Kontserbatorioan prestakuntza hasi ondoren, lehen emanaldiak egin zituen bakarlari gisa Iruñeko Orfeoian eta Iruñeko Katedraleko Musika Kaperan. Ondoren, Nafarroako Gobernuak beka emanik, Alemaniako Hochschule für Musik eskolan ikasi zuen. 1988an famatu zen nazioartean, lehen saria eskuratu baitzuen Vienako Ganbera Operako Belvedere lehiaketan. Hainbat sari jaso ditu bere ibilbidean, hala nola Kulturaren Biazako Printzea Saria 2002an, Musikaren Sari Nazionala 2009an eta Arte Ederretako Merezimenduen Urrezko Domina, 2020an.

María Bayo (Fitero, 1961) es una prestigiosa soprano, todavía en activo, que ha desarrollado una destacada carrera internacional como intérprete de ópera, zarzuela y canción clásica. Tras iniciar su formación en el Conservatorio Pablo Sarasate, ofreció sus primeras actuaciones como solista con el Orfeón Pamplonés y en la Capilla de Música de la Catedral de Pamplona. Posteriormente estudió con una beca del Gobierno de Navarra en la Hochschule für Musik (Alemania). Su consagración internacional llegó en 1988, al conseguir el primer premio en el concurso Belvedere de la Ópera de Cámara de Viena. Entre otros reconocimientos, en 2002 recibió el Premio Príncipe de Viana de la Cultura, en 2009 el Premio Nacional de La Música y en 2020 la Medalla de Oro al Mérito en las Bellas Artes.



FAUNA

KOARTZATXO ITZAINA

Koartzatxo itzaina Lotzako aintzirako espezie arrunt samarren artean dago eta, hala ere, ez zaio erraz antzematen. Izan ere, zenbaketetan ez da ale gehiegi agertzen (30 alekoa da inoiz egindako erregistrorik handiena). Gehienetan, ez dira 5 baino gehiago zenbatzen edota, gehienez jota, 10. Urteko hilabete guztietan ikus daiteke, uztailean eta abuztuan izan ezik. Ekainean ere gutxi-gutxi dabil. Ez da sekulan egiaztatu aintziran ugaltu denik.

Izenak dioten bezala, ardeidoen taldekoa da. Talde horretako 3 espezieak zuriak dira, baina bakoitzak bere bereizgarriak ditu; beraz, aise ezagutuko ditugu. Koartzatxo itzaina, adibidez, 3en arteko txikiena da; gero, koartzatxo txikia dator, eta azkenik, koartzatxo handia, koartzta hauskararen tamainakoa baita eta, beraz, beste biak baino nabarmen handiagoa. Azken horren hegaldiak ere antz handixkoa du koartzta hauskararenarekin. Bi ezaugarri ongi bereizten dute koartzatxo itzaina koartzatxo txikiarengandik: izan ere, koartzatxo itzainak horia du mokoa, eta besteak, berriz, beltza. Eta alderantziz, koartzatxo txikiaren oinak horiak dira, eta koartzatxo itzainarenak, berriz, beltzak. Espeziea Lotzako aintziran ugaltzen ez bada ere, Nafarroako hegoaldeko zenbait aintziratan bai.

Koartzatxo itzainak aziendaren ondoan egotea maite du. Beraz, maiz ikusiko dugu etxe-abereen ondoan, Lotzan ere bai. Hezeguneeekin lotura txikiena duen koartzta da, baina ugariena da larratzeko belardietan, aziendaren ondoan.



Testua: Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkarte) **Argazkia:** Gonzalo Deán

LA GARCILLA BUEYERA

La garcilla bueyera es una de esas especies que es relativamente común en la balsa de Loza y, sin embargo, pasa bastante desapercibida. Los conteos no suelen ser muy abundantes (el mayor registro contabilizado es de 30 ejemplares). Lo más frecuente es que no pase de los 5 o como mucho hasta 10. Puede ser observada en todos los meses del año excepto en julio y agosto. En junio también es escasa su presencia. No se ha constatado nunca su reproducción en la balsa.

Como su nombre indica, pertenece al grupo de las ardeidas y en este grupo hay hasta 3 especies que son blancas, aunque las tres presentan características que hacen muy fácil su reconocimiento. La garcilla bueyera es la más pequeña de las 3, seguidamente va la garceta común y finalmente la garceta grande, que es del tamaño de una garza real y, por lo tanto, claramente mayor que las otras dos. También el vuelo de esta última se parece bastante a la garza real. Hay dos características que distinguen bien a la garcilla bueyera de la garceta común: la garcilla bueyera tiene el pico amarillo y la garceta común negro. Y, al revés, la garceta común tiene los pies amarillos y la garcilla bueyera negros.

Aunque la especie no se reproduce en la balsa de Loza, sí lo hace en otras balsas del sur de la comunidad de Navarra. La garcilla bueyera se caracteriza por su apego al ganado. Es frecuente verla, también en Loza, en compañía del ganado doméstico. Es la garza menos asociada a las zonas húmedas pero la más común en praderas de diente en compañía de ganado.

Texto: Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti) **Fotografía:** Gonzalo Deán

Un verano sin incendios

Con la llegada del verano, se dispara el riesgo de incendios forestales en nuestros montes. La Orden Foral que regula el uso del fuego en suelo no urbanizable (Orden Foral 237/2017, de 4 de julio) prohíbe hacer fuego entre el 15 de junio y el 15 de septiembre en terrenos agrícolas enclavados en terrenos forestales y en terrenos agrícolas a una distancia inferior a 100 metros de una masa forestal, arbolada o de matorral, cuya extensión sea superior a 5 hectáreas; y prohíbe otras quemaduras en terrenos agrícolas de secano (quemadura de restos vegetales, restos de poda u otros). Asimismo, se aconseja respetar las recomendaciones generales para evitar la propagación de incendios forestales, como extremar el cuidado con las colillas y cerillas en espacios abiertos y evitar el abandono de objetos de cristal, como botellas, en el campo.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a sacar un bando municipal para prohibir el uso del fuego en zonas urbanas y vías públicas que colindan con rastrojeras y zonas arboladas en caso de riesgo extremo.



Surik gabeko uda

Udaren etorrerarekin, sua izateko arrisku handi-handia izaten da gure mendietan. Lurzoru urbanizazinean suaren erabilera arautzen duen Foru Legeak (237/2017 Foru Legea, uztailaren 4koa) sua egitea debekatzeko du ekainaren 15etik irailaren 15era oihanen artean kokatuta dauden nekazaritzako lurretan, eta oihan, zuhaitzi edo sasitza batetik 100 metro baino hurbilago dauden nekazaritzako lurretan, haien azalera 5 hektarea baino handiagoa denean; eta debekatu ere lehorreko lurretako beste erreketak batzuk (landare hondarrak, inausketen hondarrak eta beste batzuk erretzea). Era berean, gomendio orokorrak betetzeko aholkua eman da mendian surik ez izateko, hala nola zigarro-puntak eta pospoloak kontu handiz erabiltzea toki irekietan, eta kristalezko gauzakirik ez uztea mendian; botilak, adibidez.

Muturreko arriskua dagoenean, Udalak udal banda argitaratzeko eskubidea dauka suaren erabilera debekatzeko, betiere uztongoekin edo inguru zuhaitzuekin mugakide diren hiri-eremuetan eta bide publikoetan.



Kirolaren jaia : Fiesta del deporte

